# Kardaberaz

Euskereak burua jasotea naidu Jainkoa'k.



1'gn ZENBAKIA

## LANAK

1/Kirikiño..............................2 ika.
2/Apaizkintza eIrudia (Olerkia)....5 ika.
3/Zezena negařez.........................8 ika.
4/Tzotzeko baatoia.......................9 ika.
5/Uzkurtz-eddatia........................10 ika.
6/Euzko-basetxea umezurtz..........11 ika
7/Loa ta ametza..........................14 " "
8/Leen-gogaien sortzea...............16 " "
9/Lařamendi.................................18 " "
10/Euskel-joskera........................20 " "
11/Urte-bař́i..................................22 " "
12/Eŕi-siñestiak..........................23 " "
13/Galenasko iŕat-entzukia.........24 " "
14/Goizian-goiz...........................25 " "

"AUŘERA BETI"

Kardaberaz Bazkuna
Bazkidiak.

Albitzu'taŕ Anastasi
Anakabe'tar Kepa
Aritzmendi'tar Joxe Mari
Azpitarte'tar Joseba
Etxebaŕia'tar Paliken
Esnaola'tar Serapin
Gangoiti'tar Marzelo
Gorostiđi'tar Kepa
Mendizabal'dar Alexander
Narbaiza'tar Éramon
Oyartzabal'dar Andoni
Zamora'tar Joseba Mirena
Zubiliaga'tar Genar
Zuloaga'tar Domeka



¡¡Kirikiño!!Ixena entzun orduko
oŕ dogu irudimenian gizon baten
irudija.Nik neurian dakusana gi-
xon edeŕa ta zabala da.Iŕi-paŕe
samuraŕte ezeri antzeko begirune
zoŕotza.Baña patxadakua ta mateŕ-
koŕa dirudi.Sorbalda-zabal buru-
jasua,soin lodikote zuzena auzko-
tar jatoŕa.Biluŕ barik uŕeratu ta
ondoratu giñeikijoz.Ziŕi batzuk
eginaŕen eztirudi asaŕetuko
danik.

Baña ¿zelan [illegible]tzan il?Egija dagil zan.Aren oroipe-
na [illegible] da,oŕatiño.Oroipena ez bakaŕik,zeozer geyago,be,
bai.Bere lanak,idaztijak,ipuñak.Lan oŕeik-bide ba-dazau-
kegu Kirikiño.

Nik neuk dazaudanez darakusketsuet.

Uaŕ bat lenago."Abaŕak" idazti bijak ixan dodaz es-
kuetan.Izpaŕingi,aldizkingi ta abaŕetan egin euzan la-
nem baŕirik ezin emon neikigue.

Kirikiño elertilari dagerkiketsuet gauŕ.Beronek
euzkera-alde egin dabena ta eŕijak egin dautsen aŕera
onarem zegatijak beste baten azalduko dautsuedaz.

========

Era guztijetako gixonen loŕotzak didorokezuz Ki-
rikiño Jaunaren ipoñetan.Oŕ dozuz Euzkadi'n dakuskuzan
gixon oroen irudijak.Baseŕitaŕak,kaletaŕak,maketuak,
txiruak,aberatsak,buru-ariñak,buru-gogoŕak,zitalak,
baketsuak,azerijak,aŕuak,apalak;daneta rikuak dozuz.

Ipoñok dirala-ta,amaika baŕe egiñerazo dau Kiriki-
ñok.Baŕe...bai.Beste askok,be,iñoren-lepoz baŕe egine-
ragiten dabe,batezpe gure baseŕitaŕak dirala-ta.Ezta,
baña,Kirikiño oŕetariko oŕein oŕpokua.

Nor dozu,ba?Ibai-baztaŕeko orma-gañian zabal zabal
jaŕita,ujel zikin loyak daruazan aŕukaŕijen kontura be-
ŕe dagin zestriña?Zeri oratu ez,ta urak daruaz;eta
gixajo oŕai eskua luzatzeka ziŕika ta miŕika diardunen-
bat?Urkuari lenengo adaŕa ta gero aŕiburuz gura-aña
baŕe egin?Ezta bidezkua ori.Ezta Kirikiño oŕen tarte-
kus.Badaki,bai,gixonak zelan bideratzen diran.Ez baka-
ŕik jakintza edo idaltzi bijozkor,gartsu ta apañen-bi-
dez,beste erabatez,be,bai. Umiari lenago gura azeban
gauzaren gogua badakixue zelan egiten jakon.
Gogo ori zortuarasoteko bide asko doguz.

3
Sari askotan len eukana ezestia,atxekijetia lakorik eztago. Mutiko bateri bere oñetakuak andrazkuenak dirala ba-diñotesazu,berialaxe dakuzkezu bere oñatakuak zelan jurti asmatu ezin da.Beste batzuetan len eukazanak azeztia ezta naikua,bare apuŕ bat egin eta pizkabat zirikatzia nata-naiezkua da.Orixe da Kirikiño'ren burubidia,asmua.Zirikatu bai,baña bide onera ekartiaren. Bere ipoin geyenetan didorogu onako edo alako ikaskizunen bat.Batzuetan argi ta garbi darakusku bere asmuoi, beste batzuetan ziarka ta erdi azaldu egiten dau.

& & &

Ipoinlarija da Kirikiño;edożelakus ez.
Euzkotarrak euren edar-egaŕija ito-nata atzeri-ituŕijetara duaz;edaŕ-bila atzeŕi baŕutijetan ziaŕ dabiltz.Gure elerti baŕutijetan elbitz ager latza besterik ez?
Euzkera laga ta erderara;etxeko ezertxu,be,et txaku atsegin eta mataṙgaŕi.Eztazagunik zelan mašetu Ezagutza da mate-iturburua. Atzeŕi-luŕunak lausotu egin dauskuz gure begijak;atzeŕi axe eŕiak kiskaldu egin dauz gure ammenak.Auzokotuta bixi gara.
Atzeri-neurkiz neurtu gura doguz gure gauzak.Aua gazitu-ta,mingostuta daukanak zelan txastauteko gauza gozorik?
Erderazko lanetan dakuskuzan irudi ta apaingaŕijak eztaukozan elerti-lana bertan bera ezten dogu. Zorakeriz ta nabarmenkeriz josita ezpa-dakusku....... ezeŕ bez.
Guk ba-doguz geure irudijak.Gure elertilarijak, be,ba-dabe irudimena.Kirikiño'k,be,ba,zoŕotza ta bizija ala,be.
Kirikiño'ren ipoñetan ba-doguz antz-irudi jatoŕak.Irudi-ujelik eztakuskezu;bai,oŕatiño,noxipen,banaka-banaka darijoz?
Kirikiño'ren jardunak,batezpe alkaŕizketak bixi-bixijak dira;noxipeingo ta tarteko irudijak txinpartak dirudije.

Goyaren apuŕak azaltzen ezta nekatzen.Labuŕ ta sutsu dagerkiguz bere amesak.Ipoin baneka batzuetan joskera ezta ofen jatoŕa;aŕepataka egiñak izan-edo.
Esan-ala berez jatorjola dirudi,baña jatorkonori batzuetan edozela asaten dau.Zelan esan eztau olcozen.

Esakuntz sakon,mamintsuak ugari.Badezpadako joskera oŕeik gara bere esakuntzak bizi-tasunik ezdabe galtzen. Eŕikoya dozu.bere antz-irudijak euzko-bereziketan inausijak.Eŕetza,laua.

Ipoñik edaŕenak ziĺei-saĺetan doguz.Nokk uste ofen egi latz ta legoŕak ofen eŕetz,leun eta aŕgi azaldu leikezana...

Eskola-maixu jatoŕa izango zan Kirikiño.Jira ta bira, irudi-bidez baño ez-pada-da,be,egoki-ta eŕetz azaltzen dauz gauzak."Peruren negosiua","Pisikako irakazpen bat", "Tramankulu ikaragaŕija" edo olakoren bat eztozu irakuŕi, ene irakurlee?

Ezta txoriburua be,Ezta axiak mora-nai darabiĺan zapija ametsa amestsak dauko.Gixonak ondo dazauz.Gixa-bijotz-baŕu iluneko zirkiluak badaŕuz..."Jakintza-zaliak"auxe da Fakusku.

"Kontuz iŕilariekaz".Lagun onak biaŕekuak dirala diñosku.Gixonen buru-ariña azaltzen dauzku.

Len aŕatutako "Tramankulu ikaragaŕija"onenetarikua da. Guzuŕ biribil eta nabaŕmenkerijak eŕetz siñesten doguz. Uzkurz-egijak siñesteko buru-gogoŕ,nagi,naŕaz.

Oraingo ipoin onetan oso-osorik agiri da.Kirikiñoren irudimena.

"Uŕiak Daun Andoni'rengana".Gixonak txaŕkeri-bieztunak ebagiŕia biaŕekua dau.Gari-solua garbi euki nai dabenak, gari aŕteko olo,mugiŕa ta aski txaŕak eskubatzia edo joŕaztzia naŕa-naiezkua.

Eta edestizun edo irakurgayak egiteko ez-ete-zar gauza gure Kirikiño? "Ziñaldari" ipoña egin ebana edestizuna egiteko-aña,be,ba-zala niñoke.

$$$$$$$$$$$$$$$$$

"Kirikiño".Ziri ta miŕi,beti alai,beti baŕez;iŕipaŕe gozua,ez baŕe-algada ziŕal-eŕia.Eŕikojak bere esakera ta irudijak;bixija,leuna,laua bere idazkera.Egi sakonak ugari ta nun-nai berez darijoz.

Bafe-egin gura ba-dozu irakuři ipoňok.Eřijaren euzkere ondo ikasi gura ba-dozu,irakuři ez aspertu.Ipoin eřetz ta samuř ořetan zer ikasi asko didorokezu.

Baña "lirika" ames-irudirik eztaukala-ta,ez ezetzi. Zuk idoroten ezpadozu,be, nor-edo-nork idoroko dau ezti gozua.

&&&&&&&&&&&&&&&&&&

Euzko-elerti baratzian ba-dozuz,irakurle,tantai luze afuak,zugatz mardul ořitsuak.Bata tantai-pietan zugazpietan arteka-tarteka lore usaintsuak,be.

Tantai gůrijak mate dabez txoritxuak;besangazabal luziak atsegin miragařuak.

Eřletxuak ostera,tantaipietako loretxuak.Eta loretxuotan dabe euren gose-asegařirik onena.

-*-*-*-*-*-*-*-*-

## APAIZGINTZ*IRUDIA

Udabeřiko goiz-eder bat zan
Txoriak alai egan zebiltzan
Bizitza bait'zuten ugari
Gogo ta agats-zain giařetan.
Ala,nik ere,barne-muiñetan
Indar ařotz bat nun nabari.

$$$$$

Argi biziez,Egun,jantzia
Zorionez gañezka Ludia;
Areago nere gogoa.
Aspaldian etxe-aldi nintzan
Ta lafera-miña sor zitzaidan.
Ain edeřa izaki giroa.

******

Eman nion mendi-aldiari
Pilpil biotza maitez igari,
Adimena lo zušungaka;
Baña,irudimen,amest-sorgiñez
Amest galearazi-eziñez
Joria,neraman iaztanka.

&&&&&&&&&&&&&&&&&

6/

Mendi latz bat nekusen aurean
Artean nik gaindu bearean;
Zelai-antxa -urdibidea,
Eraduka-gabe goruntz beti
Aldaz bizi-bizien igesi,
Zoru lakatze zun, ordea.
!!!!!
&&&&&

Jarai nuen bide ortan gora
Gaindu naiean mendi-galdora;
Adimen estuntzas lotua,
Ameska bait nun beti, Bekoki,
Ta aurkez baso bat nun arki;
Oro osto-orlegiz apaindua.
&&&&&&&&

Zuaitz lerdenak zitun basoak
Goruntz begira luze besoak,
Sar eta... soiñean zirara...
Bas-itzal bait'zan ango nagusi
Eta nik ezer ezin ikusi,
Begiei ken bait'die indara.
*******

Aureraxego, sar naiz bildurti,
Aureruntz, ene begiok jaurti...
(Atzeruntz'be, doazkit sari)
Eta ona zer duten arki;
Bas-ondarean ba-dakust argi,
Ene begien zoragari.
%%%%%%%%%

Ioilla dut nik baso illuna
Sari-aski argi dagiguna.
Burua astun, soiña izerditan,
Loregiñik aurera lentxego
Egiñ-uratsak galduaz gero,
Irist-egin duten guzitan.

---

Iya gaindu dut mendi-galdora
Aldatza ez da, len ain bizkora;
Alaz ere ba'dut naiko lan,
Kemenak-ust, motel dut zangoa.
Ibilliakeyoa bait'noa
Dagidan taketx bide-ertz ontan.
&&&&&&&&&&&&&&

Noizpait ere gaindu dut Erpiña
Egi biur zait amest-sorgiña...
Ederez ase, ene begiok
Il zak ene gogo, ire egaria,

Or bait'duk maite-min iturria,
Zorionez lor adi, biotz.
&&&&&&&&&

Edera aunagu, ene mendia
Ederra benetan, lorez jantzia
Aurrez-aurre zelai zabala...
I ezin ikus nik bere mugarri
Begi-izpiak motel zaizkit sarri
Lausorik ba'lira bezala.
**********

Belardi eder, zabal ezea...
Itxaso antzo bare-barea...
Ugari da or ardi-larre
Uda berri-zornak ezotua
Pipil lez-berriez ornitua
Ta ardiak or dute batzarre.
111111111111
222222222222

Bildotxak dabiltz aruntz-onuntza
(Alatsu oiabeko basauntza
Txakurra atzetik urre dunean)
Amaika jolas egiñik dira
Zilipurdika, joan ta bira,
Ez noskê orrnagiak ba'lira.
Ni berriz zoraturik begira
Mendi-erpiñ bete-betean.
%%%%%%%%%%

"Oi belardi zorapenezkoa...
Urratu didak biotz-lañoa
Txinak gori biur biotz-barrua.
(Ler-zorian dut gizarajoa,
Ekaiztean alatsu itxasoa,
Irentzi-miñez ontzitxua)"
$$$$$$$$$$$$

Bañan...bat-batez, izukoi urdurik..
(Entzun bañt dute otsoan-aurri)
Elkarrena bil, oso bildur...
Irentzi miñez urbil otsoa,
Belarriak zut, zabal aboa,
Begiak erne, isatsa biur.
=-=-=-=-=-=-=-=-

Orok iges izuaren-izuz
Zelai-erttzeko amildegiruntz
Batzuk jausi-ta lepoa ausi,
Bestetzuk berriz larretan naasi
Notelenak otsoak irentzi,
Beren bizia or dute utzi. (Darraike)



ZEZENA NEGARREZ
(jazorikua)

I

Ikastolatik urten da, larun-
bata ar̃atzaldian Bizkaiko
er̃i txiki bateko elixpian,
mutil aidratxu bat dago.
Mutilak, biar̃igandia dok
eta zer edo zer asmatu egi-
biar̃ juagu.
-?Zer asmatuko juagu ba?
-Txori abi-bila juan...
-Bai..beti txori abietan
-Kontxo?Zer egingo juagu b
Ixo-ixo zezenketak egitia.
Ala...?
-Bai bai.Atso gurian il eben idi zar̃aren adar̃ak neuk
ekar̃iko juazat eta Mikel ixan dedila zezen.
-Nik ger̃re asto zar̃aren gañian urtengo juat.
-Ondo dago.Biar̃ ar̃atsaldian eleizakua amaituta, eleiz
aur̃eko zelaian eh?
-Bai.

II

Igande ar̃atsaldian, eleizkizuna amaitu zanian gure
mutilok dana auken gertauta eleiz aur̃eko zelaian.
An eguan Mikel;bekokian idi zar̃aren adar̃ andi bi eu-
kazan.Baita Prakeŕeneko Krispin euren asto zar̃aren
gañian txeiro-txeiro;akulu bat eukan eskuan zezenari
zast egiteko-edo.Zezenkariak (toreruak)be antxe egua-
zan.Egualdia eder̃a;eleizatik urten ebenguziak zezen-
keta ikusi biar̃ ebela-ta zelaian geratu ziran.
Er̃iko dultzeneruak "ta-ta-riiii"jo eben.Bat
batera zezenketa asi zan.Ikustekuak ziran gure
zezenaren topeka-dak;jo bata ta jo bestia ibilen.
Kolpe eutzan zezenkari bateri brusetik eta tar̃atara
aundi bat egin eutzan.Ek,or̃ek eztau balio.Orain zer
esango jeustak niri amak?...baña-ikusiko dot euk ba-
ba-ta "drapa" zezenziri (banderilla)bi lepuan inkatu
eutzazan.Baña gure Mikel zezenak lan baño topeka da
aundiaguak emoten ebazan.
An ebilen prakener̃eko Krispin, euren asto zar̃aren
gañean jo batera ta jo bestera zezenaren ondorik eta
zatz eta zatz akuluagaz zezenar̃i;baña asar̃etu zan gu
Mikel zezena.Amor̃u guztiagaz an doia astuari ere ada
aundi biak zartzen...

Astua zaara zan-eta zan tontua;atzeko anka biak gora altzatu-ta egun-iñor ikusi ez daben lako ostikadia papar-paparian mon eutzan.Onaintxe amaitu zan igande aretako jaia,ezena negarez ta gegira egoazan guztia barezka.

$$$$$$$$$$$$$$$

TXOTEKO BASTOIA

Gipuzkoako eri txiki bat zan.Don Andres jauna zan bertako apaiza,jokolari aundia,baña zoritxarekua. Anton ostera (bertako sakristaua)apaiza baño jokozale-aundiagoa;baña zoritxarekoagoa oindiño.

Etxian eukozan txari potolo-potoluak artu-ta joan zan azokara;saldu ebazan txariok.Dirua artu ebanean etxera barik,eri areteko ardotegi baten sartu-ta jokuan asi zan.Gogor jokatzen eben.Sakristaua...jakiña galtzen.Bestiak ostera alako kiñu ta barre algadorik... irabazten egozan. Txari diruak Antonek en itxi ebazan.Eguna argitu baño len,oraitiño,erriruntz asi zan.Etxian zer esango ba......zeozer asmatu egin biar.Zeozer gogoratu jakola dirudi;bai zeozer asmatu dau.Etxeruntz nentorela neukazan diru guztiak ostu daustezala abadiari esango deutzat;diño bere kolkorako,eta etxera joateko diru apurtxu bat eskatuko deutzat.

Ibili ta ibili eldu da azkenez bere erira;tira eguzkia urten orduko beintzat abadiaren atia jo eban;atera zan gure abadioi.

Egun onak emon ondoren sakristauak auxe dóñotso abadiari;Begira jauna:atzo Orrizia'ko azoken zaldu nebazan txariak eta etxeruntz nentorela Basakaitz parean lapur batzuk urten eustien eta neukan dirua kendu be bai;berorek zeozer etxera joateko emongo baleuste...gero ordainduko neuskio-ta....

Ederto ekian apaizak zer gaitz eukan bere lagunak eta oregaitik auxe ezan eutson;lapur ori gizon luzia etzan?eta bere lepuan makila lodia eukiko eban?

-Bai jauna ber-bera zan.

-Beste iru lagun be,izango juazan.-Irripaerez iñotzan abadiak.-

-Bai,ta an inguruan geiago be,ba-zirale iruditu jatan.Zuk be ezagutzen dozuz?Zeintzuk?

Eta apaizak auxe erantzun eutson;Aaaa...Txoteko bastoia...askotan neuri be ostu jaustek orek.

UZKURTZ-EDESTI PIXKA (Dafai)



Uzkurtzak zer du oñafi?Zerk sortua ote uzkurtza?

So ludiari.Begira beren buruai.Nork egindu ludia?Nork emandigu guri bizia? Ikus.

Aske gera gizonok,irakurle.Baña nolaz aske?Nork emandako askatasunak? Ludiak emandakoz ez beintzat.Ludiak ez bait du askatasunik.Iñork ezin eman ez daukan gauzafik.Lege zeindu batzuen(leyes fijas, rígidas)mende da beti.Beste aldez,ez litzake jakintz gai ludia.

Lege zeindu oiek noiz edo noiz ausi,ta gure antzo aske bagenekuskegu ludia goizetik gabera lirzake ludizti.izafâzti t.a. beera. Aske ba-litz nola ainbat gertakizunik ames igafi?

Nork sortu gaitu bada?Nondik norakoak gara? Gizonak zer edo zertarako euki burua,ta noiz bait ere asmadu bere sortzalea.Norberak ezin omen izan diola bizitzarik bere buruari gaiñ dagon Izaki batek sortu duala daitor,berandu bedere.Baña guri sofora eman digun Izaki ofek,nondik du berea?Berez du guzia. Berez bere izaki,ta iñoren beafik ez. Izaki ori Jangoikoa da.

Ona emen,irakurle,zure galderari darantzuiotana. Gure uzkurtzak zer du oñari?Jangoikoa du gure uzkurtzak oñari.Zeri sortua ote uzkurtza?Gure buru ta gauz guztien sortzale dan Jangoiko ofi zor diogun gurtzezofak sortu du uzkurtza.

Baña gure uzkurtzak etzai asko izaki,ta beti norbait agirika.Gaurkoz aldake-zale batzuen iritzia dagerketzut.

Aldake-zaleen uritziz,leen-gizonak ez omen zuan uzkurtzik.Be-endakitik sortua omen,eta leen aldian nai ta naiez,basa piztien antzo adimenge agertu zala alegia.Gogoai-gorde-leku gabe beraz.Non gorde gogaiak? Aldake-zaleek auxe darantzugute:"leen aldian beñepein iñon ez".Ona emen oien jakinduri guztia:leen-aldian gizona adimenge/Gogaige.Beraz leen aldiko gizonak uzkurtzutz susmorik ere ez.

Eta goazen aufera gure sailari jafaituaz. Gogo-zale edo " animistak" ere gure uzkurtzaren

aurka diardutenak ditugu. Aldake-zale artekoak. Zer dasata?Lean-aldian gauz guztiak erabat gogo edo anima bana zeukatela. Gogo-zalean iritziz, Izadiko gauz guztiak gogodun ziran. Gogo bakoitza Jaingoikotzak jo zuten. Eta guztiei men egiñ gañera. Ofatio naikoa len ba-zuan ainbat Jaungoikori burua makurtzen. Baña "gorora" gogoak gutxitzen asi omen ziran. Gizona, bere jakinduri bidez, ainbat gauzei gogo edo anima kentzen asi zala. Eta bai kendu ere alajañea. Gogo geienak baztertu ondoren, guk gurtzen degun Jaungoiko Bakafa besterik ez omen da gelditzen. Baña-ba-dator betiko leloa-"gogora" Jaungoiko ori ere baztertu egiñgo dutela dasagute. Jakintza bidez ortarañoxe elduko dirala. Zenbat bafegafikeriren jabe dan gizona/ Amaika esandako Tylor gaxua/

(Dafaike)

---

EUZKO BASETXEA UMEZURTZ

LUGINARI LAGUNDU DAGIOGUN

Irakurle, entzun dozu?ojuka kalean, batzafetan, eleizan.... Danak "Langilea estu dago, gaizkatzea biafezkua dogu". Batzafak, batzokiak, izpafingiak, aldizkindiak.... danak langilea zaintzeko, azkatzeko.... bizi egikiagoa, bereziagoa egin dagikean langile ofek.

Eta, Ziñez, lafi daukogu gaurko langilea. Ufi beafa oletan, eztazun andia etxean, estu-aldi asko maian.

Baña langilea bakafik ez dogu estu.

Zofotzak doguz estu-aldi batzuk, motelak bestetzuk. Batzuk arin lafitzen gaituez, nekez bestetzuk mai-utsak estura zofotzak dakafkiguz. Arin lafitzen gaitu. Gosea dagoanean ez dago erātzerik. Ona zelan aurkitzen dan gaurko langilea. Zelan edo alan gosea kendu beafean dago.

Ori ofelan da, danak ofelan aurtortzen dabe beintzat

Baña gizadiaren akatsak berdintzeko langileearen ezberditazunak kentzea ez da naikoa. Belbilak, bultziak ontziak ta beste onelako tramankuluak langileagandik yatorkiguzana egia da; jatekoa ostera nondik? solotik.

Gaur ikusten doguna, irakurle, tamalgaria da. Danak langileari begira ta gure lugiña, gure basefitar zintzoa astuta, oinpetuta.....Euzko-lugiña umezurtz daukogu, adiskide Euzko-basetxea umezurtz.

Oidoztu dozu iñoz?

Gaurko baseritara ez da gure aitak lez bizi; arazo bafiak daukoz. Arazo oferi erantzuna emon bearko....Joana ugari dogu basetxeen, etoria ufi ta nekez.

Lagun eskatzalea ez dogu gure lugiña. Bakarik bizi izan da mendi goietan. Bakarik bere gogo ta izaera etxe zuri aietan. Bakartadeen izan da bere zoria. Bakartadeak galdu ete?

Batzartu gure andiak erakutsi dautzez uritarak; ez oraitiño batzarkideen onaren, batzartutako basefitar gizajoen lepotik jatearen baño. Gure baserritarak be gizonak dira ta, zoritxuarez, baib baño geiagotan ziri edera sartu dautse. Baña gaur ondo garpututa daukogu, lar tamalez. Gaur ez da alan edo olan batzartuko, erasoi gogorak bear ditu batezkoa emoteko. Eta orregaitik "El aldeano burro" ueitzen dautse uritar zitalak. Ori bai jakituria...

Batzartzen bilur da gure baseritara, atzipetuko ete dabe bilur. Baña naikotuta dago eskergabeko izardiakaz. Urte txarak izan ditu aspaldi ontako urteok. Danak bere aurka....iñok be ez gogoan gure baseritara; ez dauka zuzendaririk, ez lagunik. Noizik bein ba-dáñotza "Batzartu zaitez, batzartu barik ez dozu ezer be egingo; auk bear dozuna (artoa, babea ta beste onelako janariak) asko be merkeago ekari leikez, baña oretarako batu egin bear zara". Au bai lotsabakokeria. Nogaz edo zegaz, noiz edo non batzartuko ba'litzakez obeto egingo leukie ganorabako itzlari orek, edo erasoiz jokatu.

Gizona ezin bizi da bakarik atzekaldean.

Laguntasuna bai da gogoen gura. Maitasuna biotz janari; ta gure baseritara bakarik naigabeetan, Maitasunge auzoan.....Bide bariak bilatzen asi da.

Laguntasuna atsegin gogoari....maitasuna biotzari...egari gogoa...ase bage biotza....

Jaunari gozoak daruaz urira,uritik otsa,atzeñi usaiña baseñira....Landagi luř gogorean izardiz bustita alkon darea goizetik gabera....Begira albora...bakařik soloa ifipafe zitala urian....zauria biotzean....iñok ez gogoan....jana uri etxean....

Urian bai ederto bizi:zortzi ordu lanean...izerge soña...tzufuntegiak ugari kalean...danak pozik,garbi ta lodi gure etxean. Utzi daigun basetxea ta goazen urira...

Ikustan dozu irakurle?Basetxea utsik lotu jaku. Urian bizi obea eidago....Basetxea utsik...Oldoztu dozu iñoz?Gafantzi andikoa dogu arazo au....Basetxean sortua dogu geure sendia,abeřia.Basetxean doguz asaben sustrai sakonak;basetxean dituzu oitura zoragařiak basetxean goi-maitasun ařī-gařī,uzkurtzaren oñari gogora;ta gaur baseřitařak urira begira.

Zutunik ikusi gura ba-dogu gure baseřia,baseřitařari laguntzea naita naiezkoa dogu.Lugiñan bizitza egokiagoa,bereziagoa egin bear dogu.Onetarako batzartu beafa dauka.Baña ez dira edozelakobatzařak asmatu bear,euzko lugiñari dagokiozenak baño.

Lan au zala dogu euzkotar biotza,oitura,enda t.a. ondo ezagutu gabe.Naita naiezkoa dogu ba euzko baseřitařen biziera ta arazuok ondo ikastea.

Bide bařiak egin,tximist-argia zabaldu,lugin jakintzak erakutsi,ikastola bereziak egin t.a.beařezkoak doguz,basetxe bizitza alaia izan daite.

Ez dau urira begira egon beař baseřitařaren gogoak. Txukun etxea,ugari jatekoa,joan nik ez etořia ugari.....Orduan bai zoriontsuak izango dirala gura baseřitařak.

$$$$$$$$$$$$$$$$$$$$$$$$$$

&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&

***********

ooooo

--------------------------------

# LOA TA AMETSA

Loa zer dan, guztiok dakigu; gizona egunoro menperatzen duan azti beltza, olerkari batek dionez. Zergatik datorkigu ordea? Korapilo au ez dute berdin askatu jakint orek. Sakabanatzeko bide ef̃esa izan nunbait iluna. Odol-goraberak artu dituzte askok lo-egikiñatzat. Baña ez dira ao batez mintzatzen. Gutxitu egiten zaigula buruan odola, dasate batzuk. Ezetz beste batzuk; geiegitu egiten zaigula. Alderantzi of̃ek zer darakusgu irakurle? Gardi ori merkegia dala.

Duval'ek darakusgunez, kirio-txiskinai (neurona) adaf̃ak kiskurtzen zaizkielako dagigu lo. Corti-odiraño (órgano de Corti) dator otsa dar-dar jantzian. Baña kirio-txiskinak bata-bestearekin lotu gabe daudelako, ez dantzugu. Duval'ek egia dasagu. Ezin ukatu.

Baña iritzi ori ez deritzait bete-betekoa. Kirio-txiskinak zergatik adaf̃ak kiskurtzen ote?

Cajal'en ustaria lengoaren antzekoa degu. Kirio-txiskinak alkar besarkatu nai luteke, baña kirizpitartekoak (neuroglia) ez diete uzten. Orixe bera egiten dute af̃i txuriak ere, batetik bestera tximist-argirik joan ez dediñ. Gaur ba'dakigu zerk laburtuarazten ditun kirio-txiskinen zarpalak (dentritas): neketik datorkigun edenak. Edentze onek zer-ikusi aundia du loarekin. Atsedenmiñak garamaz lotara. Gabean baño goizean ef̃neago gu buru-lanetarako. Zergatik ote? Eden-ondaf̃ak uxurira aldegiñ dutelako. Ona emen zer darakusguten loari buruz egindako lanak. Txakuf̃ bat etxetik irtetzeko if̃ikitzen dago. Arestian jaiki bait da lotatik. Okef̃en bat egingo al-diogu? Lo dagoan txakuf̃aren uxuria txerta dagiogun. Zer dakusgu? Ba-dijoa nagusia etxetik-at, baña txakuf̃ik gabe. Ao-zabalka gelditu da. Laister degu lo etzanda. Ba-dirudi emendik datorkigula loa. Baña ez; soñari bakaf̃ik bait dagokio egikin ori. Pozez dijoaz umetxoak lotara. Baita agure okertua ere. Arsegiñik eman al-leiguke edenak? Nor-berak atseratu dezake, gañera, loa. Noiz ikusi degu, ordea, gure naipean edena? Ots-berdiñ eta iluna lo-lagun ditugu. Gure izena degu zarata guzietan esnagef̃ien. Gogo-ituf̃ia itxi gabe ez dago lo artzerik. Buru-gabeko biziztunak ere egiten dute lo. Neke geiegia ez da loaren adiskide. Claparede'ri galde dagiogun orain. Ez, pozoiturik gaudelako; pozoitu ez gaitezen egiten degu lo. Usma-indaf̃ez. Abere-usmetan usme nagusiena da beti buru. Xagu-zaf̃ak etsai gogof̃agoa

ikusten ba'du eisa utsi ta igesi joango da, gur ere orixe ber-bera dagigu. Erleju-txintxariak ez gaitu bati esnatzen. Zergatik ote? Une artan loa onurakorago zaigulako. Amaika jaraitzale izan ditu ustari onek: Sidis, Cemelli, Tromner t.a. Usma-indarez lo artudezakegula esan zioten Claparede'ri. Baña egikiñ orri ez zegokiola loari. Claparede'k berriz ona zer jardetsi zion. Katua xaguzai dakusgunean, atseden duala deritzaigu; baña usua-indarak ez al dauka an loturik?

Ona omen loari buruz jakintzuek darakusgutena. Zer ote loa? Zergatik datorkigu? Jakintzu orok lagun ziur-ziur eziñ daranrzuketzut, irakurle.

Ikusi ditzagun loaren gora-berak. Odol-bultz eta arnasa argitan baño motelago ditugu ilunean. Bat-bateko zarata ba'dantzuzu, etengo zaizu loa. Itz-ots ba'dantzuzu bai beintzat. Gurekin ezer ikusirik duen zaratak erexago esnatzen gaitu. Txistuekin ez zaigu esnatuko aurrik. Jostalu-otsakin bai, ordea. Bultzian dijoana, gelditu utsakin esnatzen da. Sermoilaria ixildu utsakin entzulea. Beraz ez gera zarata bidez bakarrik esnatzen.

AMETSA. Egundaño ametsik egiñ etzutenak ezagutu omen zituan Locke'k; Leibnitz eta Kant'ek diguenez ostera, lo osoak ametsa beti berarekin darama. Exuer ere oien alde dabil. "Bat-batean esnatzen nintzanean ere, ametsen bat beti izan oi nuan atzean".

Dana dala, amets jaiotza astertu dagigun.

Purkinje ta Wund'ek darakuskutenez, gure ateko nabaipenetatik datorzkigu. Ustari besamotza, irakurle ikusten dezun lez. Itxuen argi-amesak oraingo ikuspenetatik ez datoz. Ezta beste irudi-alkarketa asko ere. Hildebrant'ek bi amets dakarz, ustari orren alde. Edari-ontziak erori zitzaizkion bein neskamiari. Beste bein berriz kanpai-otsa entzun zuan eleiz-atarian. Esnatu zan eta tirrin-tirrin erelojua... Radestock'ek ostera, bera elurgañean ibili zala oñutsik. Kalea-zear erdi jantzita. Zerk ekarri zizkion amets oiek? Oñak agirian zeuzkan lendabizikoan. Tapakiak erdi-erorita bigarrengoan.

Makiña bat olako ba-dagerz M. Vold'ek. Katua lotu zitzaion bein anketan. Zer dala ta? Bi ankak bata bestearen gañean zeuzkalako. Belauna urratu duanak, belauniko dabilela amets egiñ oi du askotan. Egur koskor bat bizkar azpian jarrita, bai al-dakizu zer amets egiñ zuan beste batek? Bultzian exerita zijoala.

Alpes'etara dijoaztenak ito-beafa nabaitzen omen du. Ez da gaurkoetxea amets ori. Antziña txefen-lana zala uste zuten. Baña ametsa arnas-beafaren ondorena dala dasagu guk. Adimenak ametsakin zer ikusizik ez duala dirudi. ¿Ao ote dagi? Ez beti. Lagun batek auxe galdetu zion Ackerkneoh'eki: dantasuna zer dan bai al-dakizu.

Dantasuna? Sentzunak dagerkigun oro kendute gelditzen dana. Ackerkneoh'ek ez zuan iñon ikusiori. Ellis'ek gurutz aundi bat ikusi zuan mendi-galufean eta olaxe zion: Ufutitik ikustearen egingo zuten ain aundi.

Radestock'en iritziz eguneko buru-lanean afan otsa besterik ez da adimen-senti ori.

Osto asko gelditu zaizkigu oraindik zugaitz gañean irakurle. Ezaugera zerk galdu arazten digun azaldu dizut; naimenak lotan zer egiten duan ere bai.

---

***************************************

## LEEN GOGAIEN SORTZEA

Leen-gogaieri buruz zer edo zerv esan nai nizuke, irakurle. Gogai asko ditugu bafnean. Leen-gogaiak ditugu batzuk. Leen-gogaí oien sortzea azaldu nai nizuke.

Leen-gogaiak, beste gogaiak bezela, adoromeneri ta adimenari zor dizkiogu. Adimen bakafean bi adimen ikusi nai dituzte "eskolastikoak". Gauzkiaren efeñua gogai biurtzen duana (adilea); ta gogai ori bere bafnean artzen duana (adiñea)

Adoromenak guzkiaren argazki bat ematen digute. Argazki, erenu ortan, gauzki afei bakafik dagozkion berezitasun asko arkituko ditugu. Efenu ori gogai biurtzea da adilearen (intellectus agens) lan.

Ortarako izaki ofen berezitasuna kendu, ta mota artako izaki orori dagokiona bakafik uztea du lan adileak. Gogai ori artu ta gordetzea adiñak.

Au da gogaiari buruz gure ustea.

Ez dira ordea gizon guztiak uste ontakoak.

Gogaiak sortzeko adoromenak aski dira batzuen ustez.

Gizon jakintzu asko ditugu iritzi ontakoak.

Condillac, Stuart-Mill (1806-1873) Alejandro Bain (1818-1903) Hume (1711-1776) ta abaf.

Gogaiata adoromenak ematen diguten efeñua, berdiñak dira eurekiko. Ez ordea guretzat. Gauzki-efeñu ori gauzki baten efeñu berezia izaten da beti. Gauzki bakar bateri dagokio. Gogaia, ordea orokofa da.
Mota bereko izaki orori dagokiona. Ez dira ba berdiñak. Leen-gogaiari buruz ez digute beraz ezertxore esa&en iritxi onetakoak.
Beste uste bat dagu oraindik. Gogaiak sortzeko ez dute adoromen beafik iritxi onetakoak.
Adimena aski dute. Uste onetakoentzat gure leengogaiak, danak izan ez afen, batzuk beintzat sorgetzak dira. Sagaf osea, sagar erdia baño aundiagoa dala nork esan dio ezertxo ez dakin umeari? Etzuan noski ikasiko. Onela diote Platon, Descartes, Kant eta beste batzuk.
Baña ez da egizkoa alderdi au. Ezertxo ez dakin ume batek gogai batzuk izateak, zer esaten digu?
Jainkoak eman zigun adimenak gauz asko efex ikusten dituala. Gogai efex asko izateko ez dala asko ikasi bear. Adoromenak ematen diguten efeñua aski degula gogaia sortzeko.

*********************

Eskui-ezkefeko bideak leizara ba½doaz, erditik jotzea da zuzen. Erdiz-erdi dijoa gure ustea.
Adoromeneri ta adimenari bear añe leku usten die iritxi onek.
Oaf ikasia ere uste onen alde degu.

&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&

%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%%

=================

...............

# L A R̃ A M E N D I



Euzkadi'k seme aintza gar̃i asko izan ditu. Jaunari bere izate ta bizi guztia eskeñi ta ur̃eneko aldiz argia ikusi zutenllur̃aldea beti gogoan zutela, bertako oitura, izkuntz berdiñgabea ta jolas garbia zabaltzear̃en lan asko egin zuten seme aintzoak. Bañan danan aur̃ez iru josuar arkitzen ditugu; Lar̃amendi, Mendiburuta Kardaberaz.

Lan onetan bakar-bakar̃ik Lar̃amendiren edesti txiki bat egingo det.

Andoain'en 1690'ko abenduaren 24'an jayo zan. Amazazpi urtekin Josuren Lagundian sartu zan. Lokune ospabidenak bete zituan. Lenengo Palentzi, Valladolid eta Salamanca'ko irakasle urte askotan eta gero er̃egiñaren aitorle izan zan. Bañan alaz guztiz ere Lar̃amendi'k gogatzu, ari-ariz ta alegin guztiak euzkeraren alde idazten ekinzion.

Tamalez, Lar̃amendi'k euzkerari bizia emateko lan luzeak egin zituelarik gelenak erderazkoak izan ziran. Berak idatzi zituan gaiak idaztee gaur zala bada orduan ez osanik ez.

Jauna aintzatzen eta bere er̃iko jakintza goraltzen lanean gogotik ari zala Loyola'n 1766'ko ilbeltzaren 28'an il zan. Bere irudia biotzez ta ar̃iturik gaur oroitzen degu. Biok, jakintz sakona ta mamintsua zituan Lar̃amendi'k.

Buru argia ta biotz sutsua zitualarik, bere sutatik bein baño gelagotan txinpartak irteten zitzaizkion; irakurleari gozaro par̃e eragiteko zirikadatxuak. Bere idazkera zirikatzalea zala "Coreografia" argitarazu zuan. Fita'k onelaxe zeetu zigun: "El estilo suelto, gallardo, ameno, a veces incisivo y salpicado de festivas anécdotas".

Bere eguneko ta etsai zan gizon argitsu Mayans'ek Lar̃amendi'ren idazkereari buruz auxe dio lateraz: "Ludicro genere dicendi delectatur" Mayans berari beste ar̃otz ta erdaler̃i asko gure menditartean eta zelaietan bar̃ena ibiliak izan ar̃en, euskerak bere barneko, bere biotzeko itzak dituala siñistarateko itz zirikatzale zor̃otz auek begien aur̃ean jar̃i zizkion:

Txori-buru puztua bekatz-aldia eldu zak?ero garbi buztan-latz Estek beññin igañiko.Nondik bizi zikin ori itz oñetan zer datzan? Lañamendi'k bere idazkera zoñotza zuela ba-zekian eta ezertako ingira gabe aitortu ere egiten zuan.

---

Euzkaleñiaren zabaldu ziñan uste egige batzuek euzkaldunen biotzetatik aldentzea zan bere kardaba guztia.Aita Mariana'k euzkera zer zan etzekiala itz ira intzu auek idatzi zituan:"Sólo los Cántabros (vascos) conservan hasta el dia de hoy su lenguaje grosero y bárbaro y que non admite elegancia".Ez du olakorik Sikulok esaten:"El vascuence no tiene nada de bárbaro estridente y áspero,es delicadísimo y suavisimo y sin duda alguna es muy antiguo" Lañamendi'k zentzun-gabekeri auek entzutean,biotza mindurik,Xabier'ek indiogatik ziona dio:"Ellos hablan el malabar;en cuanto a mi,mi lengua es la vasca".

Begira Mandibururi "jesusen Biotzaren debozioa"argitaratu zuanean idatzi zion eskutitzan diona:"Banagoka zure izkuntzari,leen ere baño obekiago dakust alde oietako euzkaldunen itsumendea"zeñean" darasaten eztala gure euskera gauza aundi,mee,goi-diranak adirazteko.Ona bertan guzien gezurtamena,zure liburu euskeraz ain garbiro moldatuan.Gaiak berak eztia du,ta alderdi guzietatik eztia dario;ta oñegaz itzegiteko ez da munduan gure euskera bezin izkuntza itsas koñago,eztiago,gozoagorik;eta egi onen ikusbidea zure liburua izango da."

Lañamendi'ren biotz oarkoñak ezin zituan euskeraren aurka zabaldutako iraiñak eraman eta "El imposible vencido" gogangañia idatzi zuan.Udabeñiko eguzkiak laňoak bezela Lañamendi'k idatzi onekin uste egige guziak aienatu zituan.

---

Bai,euskerak gogotiña egon beañ zuan garaian etsarik aundienak izan zituan.Ikastolatan erderaz erakustatzan;eta Lañamendi'k beste zegati bat ere aurkesten du.Korografia'n dionez euskel-izkintzariak bere itzaldiak euskera zatañean,erdel-joskeraz josiak egiten zituzten;eta gañera asko izkuntz onetan gaizki mintzetzen ziran.Ona emen Lañamendi'k itzlari auen aurka Korografia'n" diona:"Qué diria S.Agustin,de estos predicadores?Ah,profanadores de vuestro santo ministerio. Ah, adulteradores de la palabra de Dios,descrédito de

la cátedra de la verdad,desertores de la escuela de Cristo,paniagudos del diablo y de sus mundanos,pastores falsos,maestros farisaicos que quieren lisonjear a veinte loquillos ignorantes,más que se vuelvan en ayunas y aún más que se mueran de hambre las pobres ovejas de Cristo". Gaurko izlari batzuekin ere orixe bera esango luke.Gugatik olakorik ez dezatela esan.Ikastoletan erdera erakusten ba-da;ikasle irakaspenak,umian jakintzaren asieran izan afen; gure uzkurtz ta sinismeneko egi ondapenak ere besarkatu bear ditu,ta ortarako gure egikizunean sartzen da,Jangoikoarengana gogoak eraman nai dituan artzaiaren egikizunean.Eta artal ontan danak umeak dira, okertutako agureak ere bai,ta ondona ulertuko duten izkuntza erakutsi bear diegu.

*********************************************

## E U S K E L - J O S K E R A.

Euskeraz ala erderaz idatzi,ba'dago aldarterik. Idazterakoan,ordea,bakoitzari berea ematen jakin bear degu.Euskeraz edo erderaz idazterakoan,bakoitzarentzat arau bereziak bear ditugula,alegia.

Euskeraz ari,naiz idazten naizm izketan,itz bakoitzari bere tokia ematea bear-bear degu.Bear ez duan toki bat emaiozute itz bati;ta esakuntzaren esanaia aldatu dagizute.Ez dezute nai dezutenik azalduko.

Euskaldun jatofak gauz erexa du au.Nai-ezta bezela irtetzen dio bakoitza bere tokian.Euskaldun jatofak efdel kutsurik ez bait-dute,euskel usai ta joskera darizte beren idatzi ta jardunetan.Ez dijoa kizute zuei lefo auek.Ez dituzute bear ere.

Ain esukeldun bizi izan ez geranok, ordea, gure jardun eta idaztietan erdera darabilgunok; nola egin euskeraz zuzen? Erdel-kutsua mañetarako degunok,nola ixuri esukel usaia? Euskel kutsuari,erdel joskerari esiak jafiko ditionen bat bear; erdel eta euskel joskerai mugak ezafiko ditien arauak bear.

Altube'ren "Erderismos" det begietan:bai afszoi motzak Altube'k.

Baña Altube'k diona... Eta beste guziak diotena.. Euskal-kutsua grabitu nai ba'degu, euskera muñetara-

raño sartu ba'degu;baseñietara jo,euskel idaztietara jo ta itz egin.Baseñietan degu guk euskera edeñ,garbi lirain.Baseñi ditut nik euskeldun uts diran eñiak ere.Baseñi ta eñi auetan ditugu guk pitxi edeñ ta zoragañiek.

Euskel-esaera edeñ-utsez betea degu toki oietan euskera.Euskera erexa,baña garbi ta jatoña euskeldun oiek,Edonun dagerz baseñitañak itz edeñ eta sakonak. Noiz-nai itz egokiak.Bear dituanean esaera zoñotzak. Itz goxo-leunak bere kutunei mintzo dienean.Itz biĩe ibiĩi beañik ez.Bilatu gabe ditu ezpañetan.

Guk degu aldartea guk.Eta gu ere euskaldun izan.

Ba'degu beste bide bat ere.Baseñietara joaterik ez ba'degu ere euskera eñex eta edeña duten idazlerik ba'degu ta auetara jo genezake.Euskal idazle bikañik sortu digu aspaldian Euskadi'k.Biotzean dute euskera ta izkutu guziak ondo miatu dizkiote,baita pitxi edeñik arkitu ere.Euskera mendean dute ta auek ditugu bide-erakuslerik onen.

Auek ere ordea askotarakoak ditugu.Batzuk aditza dute edeñ;itz ugari-egokiak beste batzuk;esakera jatoñak ixuñtzen dituzte beste askok.Auetako bakoitzak ematen diguna jasoaz,laster genduke euskera mendean. Irakurtze ta entzutea on ditugu ta beañezko euskera ikasi nai ba'degu.Baña irakuñi ta entzundakoa itz egin eta idaztea askoz ere obe.

Baseñietan entzun eta idaztietan irakuñitakoa, euskera garbi-edeñaz itz egin ba'dagigu,erabiĩaren erabiĩiaz,aurki santsiko zaigu guri ere.Au dizut irakurle gorazeagoa nizuna.Bakoitzak ematen diguna jasotzea,alegia.

-=-=-=-=-=-=-=-=-=-=-

Ez nizun,ordea,gaur asmo au,jardunaren jañdunez okeñ bidetik ba'det ere.Altube auñean,eta galde gaia azaldu nai nizun,eta euskel-joskera jañi begietan.

Baña esanaren damuñik ez det.Emen esana,geok uts ez ba'dagigu beintzak,galdeigaia bezin onugañi izango al zaigu.

Gogaikañi ezan ez ba'natzaizu,uñengoan azalduko dizkitzut galde-gai ta euskel joskera.

*****************************

&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&



Urte baŕi. Ondo-ondo asiko ta asi dozun baño obeto amaituko al-dozu urteau. Gabon-jaiak diralata edo Eŕegen eta urte baŕi egunak dirala-ta amaika ekandu zar baŕiztazen dira gure eŕietan. Nik be oŕetariko bat azaltzia nai... Urte baŕi egunekoa; ikusiko dozunez, labura. Abenduaren amaseian asi-ta ogeta laurarte gauero abestu ta abestu mutil aldra; neure eŕian bai beintzat. Baña urte baŕi egunian zoratueragin egiteko beste aldra ibiltzen dira. Mutikotxuak baita neskatotxuak be. Ia eŕi guztiko umeak oŕ dozuz aterik-ate; danok pozik eta alai. Etxe bateko ate ondoŕa eldu-ta obegira zelan abesten daben.

Urte baŕi-baŕi
Txaŕi belaŕi
Daukonak eztaukonari
Emotia zaŕi,
Lau intxaurtxu
Lau gaztaña
Tiri tiri taña
Urte zaŕak juan-ta
Baŕijak etoŕi
Niri emon biaŕko daustazu
Urte baŕi sari.

Mutikuei emoten jakuen saria ez da izaten aundia. Eskatu be gitxi egiten dabe. Baña dana dala txakuŕ aundi bi edo iru ta beste sei edo saspi intxauŕ emonezkero txoria baizen alai duaz. Umeak poztutzeko asko bear izan ezaŕen, era askotako notiñak bizi dira ludian eta ezer emoten ez dautsienak bere izaten dira. Baña atiari ostikada bat emon eta itz onek esan barik ez dira aldenduko:

Ez ba-dozu emoten
Beti K. k. laŕi.



## ERI - SIÑESTIAK

1). Ezkerako belaŕia berua daukogunian txaŕto esaten dago gugaitik nor-edo-nor. Eskumia ba-daukogu, baríz bero, ondo esaten.

2). Sukaldeko argiari jiraka txipiliten bat ba-dabil, ezaugaŕi txaŕa; senitartekoaren bat il edo aŕizku aundian dago.

3). Jainkuaren katua deritzon mamoŕia tragau ezkero, Jaiñkoa bera iraintzen da.

4). Mutiko bat guzurtia dan laster ezagutzen da. Atzamaŕetako atzazkalean agertzen dan zuriune bakoitza guzur bat da.

5). Txindoŕari ez dautzo iñok aŕirik jaurtzen, ezta eŕeka-zozoari be; oben aundia egingo leuke bestela. Txindoŕak arpegia garbitu eutzan Jesucristori kuritzetik dindilizka eguanian, eŕeka zozoak ostera buruko arantzak kendu eutsozan.

6). Eskuan ezin leike txingaŕik erabili, oian txis egingo dau bestela.

7). Egunez agiñen bat jausi ba-jaku, gorde egin biaŕ dogu ta iĺun abaŕian zagu zaŕak etxiari jiraka asten diranean zagu zaŕari jaurti biaŕ dautsogu ta auxe abestu:

Zagu zaŕa
Eutsi agin zaŕa
Ekatsu agin baŕia
Zagu zaŕ baŕe-gaŕia.

Agiña eŕezago artu dagian, téĺatu gañera jaurti biaŕ da. Zagu zaŕak ekaŕiko dausku agin baŕia.

8). K. k. mokordo bat umiak ikusi ta a egin dauanari eperdia eŕe gura ba-dautsie, ari sua emotia baño ez daukie.

9). Ziraun bat tragetan dogunian eta erdibitzen ba-da gorputz-zatiak saltoka ara ta ona asten dira. Amoŕuz zatitu ta apurtu egiten dabe umiak. Saltoka dabiĺan buzten zati oŕek birao ikaragaŕiak botaten dautsoz Jainkuari ta orixegatik albait ariñen iĺ egin biaŕ da.

10). Norberaren urteak betetzen diran egunean sastopean lo egin biaŕ da. Alan esaten dabe beintzat zaŕak. Zergatik ete?

## GALENAZKO IŔAT-ENTZUTIA.

Gaur egunez iŕatentzukiŕik onena galenazkua degu. Geien zabaldu dana. Iŕat-botakaiak dauden urietan bai beintzat. Gure Donosti, Bilbao, Gazteiz t.a. galena bidez amaika gauz edaŕ entzun oidute. Zuri ere atsegin izango zaitzula, irakurle, galenari buruz zerbait jakitea, ta emen nagokizu lumatxoa eskuan zerbait idatzi naian. Galenazko iŕatentzutia egiteko ere aukera dizut. Baña moldakaitz nauzula aurez dasatzut. Zoritxarez zail ontan saio gutxi egiña bait nauzu. Galenazko iŕatentzutiak egin nai? Atoz irakurle biok artean zerbait egiten



degun. Txiŕikak egitea da auŕen lana. Ikus nola egin. Biribilez bost c.m. eta luzez ogei c.m.'dun ingoŕezko odia (tubo de cartón) eta ondo-ondo lerdokiztatu (embarnizar). Legortu geroz "parafinatu". Ondoren zulo bat egin odi-ertz aldean. Bertatik sedazko bi azaldun aŕimutuŕak zulo oŕtatik sartuta zulo naguzitik atera. Gerp aŕi berarekin ekin odiaren biran bira ta bira. Bostgaŕen biran zulotxo bat egin eta ari zati bat bertatik zaŕtuaz zulo naguzitik zaspi zentimetroz atera. Baña okerik ez dagizun ikuz ondo-ondo aureko irudia (1 ta 2). Dakusazunez aŕia zuloratzeko ez daukazu zatitu beaŕik. Ezta bezte ari-mutuŕari ikutu beaŕikere. Bein aŕi zati ori zuloratu ezkero jaŕai lenian aŕia biratzen amaŕgaŕen bira arte.



Amaŕgaŕenian, bostzgaŕenian egin dezuna egin. Berdin uŕango biretan ere. Bostnan bostnan beti ogeita amabosgaŕenera arte. Baña beste bat ere beaŕezko zaigu. Bigaŕen au ere lenengoaren eran eginge degu. Odi bertan lenengo txiŕikaren ondoan lau c.m.'ko aldez. Eta len bost biratik bost birara egiten genduana orain ogeitik ogeira egingo degu. Arimutuŕak beste zulo nagusitik dirala.

Ona irakuŕle, txiŕikak egiten nola edo ala bedere asma degu. Orain erabateko tximist-bildoki edo "condensador" deritzaiona egin beaŕean gera. Lanean asteko zaspi leiaŕezko idatzezko-eredu bear ditugu. Baita beste sei berunpingoŕ ere.





Nola eratu ordea? Aureko irudiak erakutsiko digu. Idatzezki-eredu bakoitzari berun-ingia esari "parafinakin" gogortuaz.



Berun-ingiak 6'garen irudiak dion bezela; (1,3,5,)iru aldebatera;beste irurak(2,4,6)bestera. Azakenez lan au egin ondoren idantzezki-ereduak "parafinadun" ari batekin arildutuko deguz. Onez gañera taimist-biltoki aldakor bat eta leiarezko galena bay. Artez ikusi azkenengo irudia.

---

GOXIAN -o-o-o-o-o-o-o-o-o-o-o- GOIZ

...Laurak eta bolinta zubi barijan! Gergorio! deu lagunen. Gurdija artu-ta guazen bolinta batzera, Pantalion... Txalupa guztijak urten dabe ta guk gauzarik biareskuenak oindiño egiteka.

Gergorio zetan zagoz? Berbeta auxe ebilan Joxe Ramon'ek nasa aldian. Berandutxu ebilan eta orixegatik zan asare. Txistua baño ariñago batu ebazan txalupa lagunak Gergoriok. Emen doguz gurdi ta tresnagaz Pantalion, Martolo ta atzekua, Joxe Ramon.

Artu mundila ta "aire" San Juan txurura: Martolo an zagozalakuan emen. Proilam, Gergorio masija ta biñak sartu barura. Anbrosio zetan zagoz? sartu barura;beguna batzeko eztaguala iñor ez-al-dozu ikusten?

-Bai -dirautso onek.

-Gertu gagoz? Ez, -diño Martolo'k.

-Zer gelditzen da kanpuan?

-Kurkila palta da-ta-Eño ez da etori.

-Eñori detu egijozu Gergorio.

-Eldu da Eño; ija itxazora barik geratu zan, auzoko andriari eskerak.

-Be-gara? Zabaldu aurian. Emon Pantalion.

Amar minitu-baruan eldu ziran biar eben tokira. Asayan egozan txalupa ezko. Batzuk arañe ala-ta euken.

-Eremijio, eruan gào aldera, atzo Tokayonak antxe naiala artu eban.
-Eztakit, emen beko aldekuok ala ala daben.
-Eztausku ardurarik; ezer ezpa-dago gero beruntz egingo dogu. Eño, gertu txanela botatzeko; i Mikel, sartu maeija ta kurkila. Adi egon; nik eskuaz egindakuan uferatu.
Onela ebilan Joxe Ramon: arduratsu. Etzan orduerdi eskuaz egin ebala.
-Ezta nekeza, diño Eremijiok, kaltza zieskuak jantzi txartangua gertu aurian.
Araña gorìtan dago. Korenta goruntz ta beko aldia artu biar jako. Berogei arua ba-dabez.
-Prest txotxo. Gergorio beguna botatera datorela. Bota, txotxo, bota. Kontuz. Auxe da arain pilua. Eta zuk Pedro aureko kortxuetako tirak artu, zarata barik Eutsi, ten aureko soka aluei. Jaube aspijari. Mamiñak ondo datoz! Gora braekua laster geuria da-ta. Ez Ez estutu mitulak; egin juagu.
-Pantalioa, eregiña. Guardarañak ondo ipiñi egixue.
Ondo-ondo. Oindiño estu ta lari dabil Joxe Ramon guria. Pozik oratiño be; alako arain pilorik! otzarak bete dabez. Beteteka geratu ziran zar bijak txopazpera jaurti dauz.
Alako egunik... amabi ereginkada. Barogei arua in guru...
Joxe Ramon... Gure Joxe Ramon bai mutila, azken juan eta geien arapatu. Baña bai Angel Arona be zeozer. Onetxek bakarik geyago egin eutsan Joxe Ramon'er

"="="="="="="="="="="="="="="="="="="=
-0-0-0-0-0-0-0-0-0-0-0-0-0-0-0-0-
0-0-0-0-0-0-0

